

**JAUNAK ASKARTZA SASKIBALOI TALDEAREN IZENEAN JARRITAKO  
ERREKURTSOA EZESTEN DUEN ERABAKIA**

Espediente-zenbakia: 23/2015

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** [REDACTED] jaunak, Askartza Saskibaloia Taldearen izenean, errekurtsoa jarri zuen (500267 zenbakiarekin erregistratua) Euskadiko Saskibaloia Federazioaren Apelazio Batzardeak (aurrerantzean, "ESFAB") maiatzaren 21ean emandako 14. epaitzaren aurka.

**BIGARRENA.-** KJEB Kirol Justiziako Euskal Batzardeak errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta Club Baloncesto Paúles alderdiari jakinarazi zion hamar laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapidetak proposatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Euskadiko Saskibaloia Federazioaren Apelazio Batzardeak, 2015eko ekainaren 8an erregistratu zen idazkiaren bitartez, espedientearen eta txostenaren kopia bidali zuen, [REDACTED] jaunak aurkezturiko errekurtsoarekin batera.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** 14/1998 Legearen 138. artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.a artikuluan arabera, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak du errekurtso hau aztertzeko eskumena.

**BIGARRENA.-** Auzipetzen ari garen errekurtsoarean jatorria da aurtengo martxoaren 22an Paúles IG eta Askartza Claret klubaren artean jokaturiko partidaren ondoren gertatutako borroka (arbitroak "liskar" gisa definitu du).



Iskanbilaren ondorioz, Bizkaiko Saskibaloï Federazioaren Lehiaketa Batzordeak (BSFLB) apirilaren 14ean 350. epaitza eman zuen erabakiz, kasuaren arabera, Askartza Claret klubeko 12 jokalaria eta Paúles klubeko 11 jokalaria zigortzea edo ohartaraztea; bi klubei isuna jartzeaz gain.

Epaitza horren aurka, Askartza Saskibaloï taldeak gorako errekurtsua jarri zuen Apelazio Batzordean, bertan honakoa eskatuz: "(...) 580. lizentzia-zenbakia duen jokalariai araudiko 37a) artikulua aplika dakiola, 36a) artikulua ordezkapenez, eta Bizkaiko Federazioaren Lehiaketa Batzordeak 350. epaitzan ezarritako zigorra murriz diezaiola".

Apelazio Batzordeak maiatzaren 21ean ebatzi zuen -14. epaitzan- Askartza Klubak jarritako errekurtsua ezestea eta, beraz, lehen aipaturiko 350. epaitza berrestea.

Ondorioz, ebazpen honen objektua da klub errekurtsogileak Kirol Justiziako Euskal Batzordean lehen aipaturiko 14. epaitzaren aurka jarri zuen errekurtsua auzipetzea.

**HIRUGARRENA.-** Askartza Claret klubak hainbat alegazio aurkeztu zituen, honela laburbildu daitezkeenak: 1.- [REDACTED] jokalaria, 580. lizentziaduna, ez zuen hasi ez eta parte hartu "partida amaitzerakoan gertatu zen liskarrean (...)"; 2.- zigortutako jokalaria aitortu egiten du bere jardunbidea okerra izan zela; 3.- aurrez esandakoak ez ditu inolaz ere justifikatzen aktan jasotako kirol-kontrako ekintzak baina "gure aburuz testuinguruak aringarri gisa balio beharko luke gertatutakoa epaitzeko orduan"; 4.- partidaren aktan jaso bezala, 580. lizentziadun jokalaria barkamena eskatu zion partida amaitzerakoan arbitro-taldeari; 5.- jokalariai urtebeteko zigorra ezarri zaio "Diziplina Araudiko 31. artikuluekin loturiko 36a artikulua arabera, hutsegite oso larria dela eta", eta zigor hori neurritz kanpoko dela uste dugu, bai gertatutakoa eta baita gainerako jokalariei ezarritako zigorrak kontuan hartuta; 6.- 580. lizentziadun jokalaria ezarritako zigorraren zorrotasunaren arrazoia da "261. lizentziadun tokiko jokalaria mediku-agiria aurkeztu zuela ustez 580. lizentziadun jokalaria egin zion zauriaren argazkiarekin", "horrenbeste pertsonak parte hartu zuten liskar batean oso zaila izanik zehaztasunez jakitea kolpe jakin bat nork eman zuen eta kolpe horren ondorioak zein jokalariri egotzi behar zaizkion erabakitzea"; 7.- "mediku-agiri hori erabakigarria izan da jokalaria honi 36a artikulua aplikatzeko (...), beste jokalaria batzuei araudi bereko 37. artikulua aplikatu zaiela kontuan hartuta, partidako aktak denei ekintza



berak egozten dizkien arren, esaterako 847. lizentzia-zenbakia duen jokalaria"; 8.- 580. lizentziadun jokalaria "jokalaria izateaz gain, bere klubeko entrenatzaile eta kirol-koordinatzailea da (...), agerikoa izan arren gertatutakoak zigorra merezi duela, uste dugu urtebeteko zigorra erabat neurritz kanpoko delat. Batzorde honi erregutzen diogu epaitzan borondate ona ager dezan, gertatutakoaren testuingurua eta jokalaria berehalako damua aringarritzat aintzat hartuz (...)".

Alderdi errekursogilearen aburuz, "zuzenena izango litzateke 580. zenbakidun lizentzia duen jokalaria 37a artikulua aplikatzea, eta ez 36a artikulua, zigortutako gainerako jokalariekin egin den moduan eta arrazoi berarengatik, gure ustez bidegabekeria baita jokalaria batek lesiorik ez dagoela berresten duen argazki bat edo laguntza boluntarioko agiri bat aurkeztu izanagatik, jokalaria batzuei eta besteei ezarritako zigorren arteko aldea horren handia izatea".

Bere aldetik, Lehiaketa Batzordeak honakoa argudiatu zuen ekainaren 4ko txostenean: 1.- "(...) egiaztatuta geratu da [REDACTED] jaunak [REDACTED] jaunaren ekintzaren ondorioz jasandako lesioa traumatismoa dela, kirolean zehar sudurreko traumatismoa agertzen duen anamnesi edo datu kliniko esanguratsuen multzoak adierazten duen bezala, bai eta Quirón Ospitale Taldeko [REDACTED] doktorearen diagnostikoan, sudurreko traumatismoa adierazten duena"; 2.- ezin daiteke onartu Askartza Claret klubak egindako alegazioa, [REDACTED] jokalaria aurretiko patologia bati dagokiona, "ez baitzen hori izan Quirón Ospitale Taldera joateko arrazoia eta, bestalde, ezin da aintzat hartu [REDACTED] jaunak jasotako laguntzaren ondoren bestelako tratamendu medikorik jaso ez izana [REDACTED] jaunaren jokabidea Diziiplina Araudiko 37 artikulua A atalaren barne dagoela erabakitzeke (...)"

**LAUGARRENA.-** Beraz, auzipetzen ari garen gertakariak honakoak dira: orain alderdi errekursogilea den jokalaria eraso, ukabilkada, jaso zuen jokalaria Quirón ospitalera jo zuen eta bertan erradiografia egin zioten X izpiekin, erradiografiaren emaitzan ikusi zelarik ez zegoela hausturarik baina bai traumatismoa.



Errekurtsorearen objektua aurreko *factum*-ean mugatuta, gakoa da erabakitzea zigortutako jokabideari aplikatutako artikulua dagokion (36 A artikulua) edo aldiz eskatutako artikulua dagokion (37 A artikulua).

Helburu honekin, gogoratu beharra dago bi artikulua hauen arteko aldea ez dela huskeria, lehenengo kasuan hutsegitea oso larritzat jotzen delarik eta, bigarreanean, hutsegite larritzat.

Aipatutako xedapenek honakoa diote:

- "36. artikulua- Hutsegite oso larritzat joko dira eta 600,01 euro eta 3.000,00 euro arteko isunekin eta/edo urtebete eta egun batetik lau urtera bitarteko etenaldiarekin zigortuko dira:

A) Saskibaloia partida batean parte hartzen duen edozein pertsonaren, kirol agintarien edo, orokorrean, edozein pertsonaren aurkako eraso, ekintza horrek laguntza fakultatiboa edo tratamendu medikoa behar duten lesioak eragiten dituenean (...)"

- "37. artikulua- Hutsegite larritzat joko dira eta hilabete eta egun batetik urtebetara bitarteko etenaldiarekin edo bost eta hogeita lau partida bitarteko etenaldiarekin eta/edo 80,01 euro eta 600,00 euro arteko isunekin zigortuko dira:

A) Saskibaloia partida batean parte hartzen duen edozein pertsonaren, kirol agintarien edo, orokorrean, edozein pertsonaren aurkako eraso, beti ere ekintza horrek laguntza fakultatiborik edo tratamendu medikorik behar ez duten lesioak eragiten baditu (...)"

**BOSGARRENA.-** Beraz, eztabaidan dagoen gaia da erabakitzea lehen aipaturiko ekintza – prebentzio neurri gisa edo behaketarako osasun-etxe batera jotzea aholkatzen duen ukabilkada, hausturarik eragin ez duena baina bai traumatismoa– "laguntza fakultatiboa edo tratamendu medikoa behar duten lesioak" bezala deskribatutako motaren barne aintzat hartu daitekeen edo aintzat hartu beharko litekeen.

Xedatutakoa definitzen duen irizpidearen jatorria eta aurrekariak zigor-zuzenbidean aurkitzen ditugu, zehatzago Zigor Kodearen 147.1 artikuluan: "Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati lesioa eragiten badiu, gorputz-osotasunean, osasun fisikoan edo buru-osasunean kalte eginez, orduan pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra



ezarriko zaio, lesio-delituaren errudun gisa, baldin eta lesio hori objektiboki sendatzeko, medikuntza-sendabidea edo sendabide kirurgikoa behar badu, adituen lehenengo laguntzaz gain. Adituak lesioaren inguruan egiten duen zaintza edo jarraipen hutsa ez da medikuntza-sendabidetzat hartuko".

Honela, lesio-delituaren eta lesioen hutsegitearen arteko desberdintasuna da lehenengo kasuan sendatzeko medikuntza-sendabidea edo sendabide kirurgikoa behar dela, lesioen hutsegitearen kasuan, aldiz, lehenengo laguntza nahikoa izanik.

Ondorioz, hori izango da hartu beharreko erabakia gidatuko duen lege-irizpide eta jurisprudentziako irizpidea; hemen ebatziz medikuntza-sendabiderik egon ez arren –sendatzeko xedearekin mediku batek agindutako laguntza oro gisa ulertuta– laguntza fakultatiboa egon zela, burututako frogak –erradiografiek– adierazten duten moduan, arreta xume gisa edo prebentzio edo behaketa neurri gisa.

Beraz, Batzorde honen iritziz, hutsegitea ongi arautu da ez baitago inongo arrazoirik hutsegitearen larritasun-maila aldatzeko, eta horregatik hain zuzen berresten da jatorrizko zigorra, hau da: "urtebeteko zigorra ezartzea 580. zenbakidun lizentzia duen Askartza Klubeko jokalariai aurkari bati egindako erasoagatik, Diziplina Araudiaren 31. artikularekin loturiko 36 A artikuluari jarraiki, eta klubari 20€-ko isuna jartzea, Diziplina Araudiaren 22. artikuluari jarraiki".

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau

## EBATZI DU

██████████ jaunak, Askartza Saskibaloï Taldearen izenean, Euskal Saskibaloï Federazioaren Apelazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 21ean emandako 14. epaitzaren aurka jarritako errekurtsua ezestea.



Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Gasteizen, 2015eko irailaren 10ean.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA